

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

**56/2019 Foru Agindua, otsailaren 28ekoa, onartzen duena Arabako kirol federazioetarako eta kirol federazio elkarteetarako dirulaguntzen deialdia, 2019an zehar euskaren erabilera normalizatzeko programak garatzeko**

Euskara, Kultura eta Kirol Saila aztertzen ari da diruz laguntzea Arabako kirol federazioak eta kirol federazio elkarteak, sozietatearen egoitza Araban dutenak, 2019an euskararen erabilera normalizatzeko programak garatzeko jarduerak egin ditzaten.

Horretarako, nahitaezkoa da ezinduentzako kirol jarduerak bete beharrekoak zehaztea, sailak dirulaguntza egokiak bidera ditzan.

Kirol Zerbitzuaren buruak emandako txostena aztertu da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Sozietatearen egoitza Araban duten Arabako kirol federazioen eta kirol federazio elkarten bidez euskararen erabilera normalizatzeko programak garatzeko 2019ko dirulaguntza deialdia onartzea. Deialdia hamar mila euroz (6.921,00 euro) hornituta egongo da gehienez, eta hauek arautuko dute: Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak (ALHAO, 123. zk., 2015eko urriaren 21ekoa), Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskumen esparruan lehiaketa bidez emango diren dirulaguntzei aplikatuko zaizkien oinarri arau orokorrak onartu zituenak, eta foru agindu honen eranskinean jasotako berariazko oinarriek.

Bigarrena. Gastu hori Arabako Foru Aldundiaren 2019ko gastuen aurrekontuko 70.1.06.77.00.481.00.12 partidaren kontura ordainduko da (lerroa: 70-119; xedapen erreferentzia: 105.782).

Hirugarrena. Kirol Zerbitzuaren proposamena aztertu ondoren emango du organo eskudunak bidezko ebazpena; horretarako sei hilabete izango ditu, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, interesdunek ulertuko dute eskaera ezetsi egin dela.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakiok Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakiok bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatzen dituen moduetan.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 28a

*Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua*  
**IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE**

*Euskara, Kultura eta Kirol Saileko zuzendaria*  
**JOSEBA KOLDO PÉREZ DE HEREDIA ARBÍGANO**

### **Eranskina**

Arabako Kirol Federazio eta Kirol Federazioen Elkarteentzako dirulaguntza deialdia,  
2019an zehar euskararen erabilera normalizatzeko programak gara ditzaten

#### **Lehenengoa. Xedea eta helburua**

Deialdiaren helburua da lehiaketa bidez dirulaguntzak ematea, kirol federazioek eta kirol federazioen elkarteek 2019ko urtarrilaren 1a eta abenduaren 20a bitartean euskararen erabilera normalizatzeko programak antolatu, garatu eta gauza ditzaten, nola pertsona hala gizarte eremuan, Arabako lurralde historikoan, Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak xedatutakoaren eremuan, zeinaren bidez onartu baitziren Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzen oinarri arau orokorrak.

#### **Bigarrena. Aurrekontu egozpena**

Dirulaguntzen zenbateko osoak ezin izango du inola ere gainditu horretarako bideratu den zuzkidura, hau da, 6.921,00 euro, eta Arabako Foru Aldundiaren 2019ko ekitaldirako luzatutako 2018ko gastu aurrekontuaren "Klub eta federazioetarako dirulaguntza, hizkuntza normalizazioa" izeneko 70.1.06.77.00.481.00.12 partidari egotziko zaizkio.

Diruz lagundutako esparrua: euskalduntze-alfabetatzea. Esparru honetan bakar-bakarrik parte hartu ahal izango dute kirol federazioek eta kirol federazioen elkarteek, sozietatearen egoitza Araban badute.

Atal honetan esleitzeko dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoak ezin izango ditu gainditu eranskin honen zazpigarren paragrafoan berariaz zehaztutako ehunekoak, eta inola ere ez zenbateko hauek:

- 850,00 euro, 2.000 lizentziatik behera dituen kirol federazio bakoitzeko.
- 2.550,00 euro, 2.000 lizentzia edo gehiago dituen kirol federazio bakoitzeko.
- 850,00 euro, kirol federazioen elkarte bakoitzeko.

#### **Hirugarrena. Erakunde onuradunak eta kanpoan geratuko direnak**

Entitate onuradun izango dira:

- Arabako kirol federazioak.
- Kirol federazioak eta kirol federazioen elkarteak, sozietatearen egoitza Araban badute.

Deialditik kanpo geratzen dira Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, onartu zituenak Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak, bere hirugarren klausulan zehaztutako egoeretan aurkitzen diren elkarteak.

Dirulaguntza jasotzen duen erakundeak hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatu behar du jaulkitako agiri guztietan, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea betez (4/2005 Legea, otsailaren 18koa). Lege horri jarraituz, argitaratzen diren irudietan ezingo dira erakutsi pertsonak, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu objektu soil gisa, saihestu egingo dira estereotipo sexistak eta roletan eta genero identitateetan sexu aniztasuna bultzatuko da.

#### **Laugarrena. Diruz lagundu daitezkeen programak**

Diruz laguntzeko moduko programen berariazko eta ageriko helburua izango da beren jardura eta prozeduren bidez euskararen erabilera sustatzea eta xede izatea hizkuntza ohiturak, betiere euskalduntzearen ikuspegitik.

Diruz lagundu ahal izango da HABEk homologatutako zentro batean oinarri hauetako hirugarren paragrafoan zerrendatutako erakunde onuradunek kontratatutako langileek 2019ko urtarrilaren 1a eta abenduaren 20a bitartean euskara ikastaroetarako egindako matrikulek eragindako gastua. Diruz laguntzeko moduko gastutzat matrikula bakarra hartuko da erakunde onuradun bakoitzeko, 2.000 lizentzia edo gehiago dituzten erakundeen kasuan izan ezik; kasu horretan, hiru matrikula onartuko dira erakundeko.

Ez dira diruz laguntzeko modukoak izango, dirulaguntza lortzeari eta/edo justifikatzeari dagokienez, ondoko gastu hauek:

- a) 100 orduetik beherako iraupena duten ikastaroak.
- b) Zeharkako zergak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke (BEZaren kuota kengarria).

#### **Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea**

1. Eskaerak Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuari zuzenduta bidali beharko dira, l. eranskinean argitaratzen den ereduari lotuta.

2. Eskaerekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

Euskara ikastaroetan matrikulatutako pertsonen erakunde onuradunaren egiaztagiria, non zehaztuko diren izen-abizenak, nortasun agiri nazionalaren zenbakia, erakundearekin kontratu bidez duen lotura eta erakundearen barruan egiten dituen lanak.

Eskatzaileak soldatapeko langilerik badu, bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 12.2 artikuluan jasotako debekuren batek eragiten ez diola egiaztatu beharko du. Horretarako, gai horietan eskumena duten erakundeen egiaztagiriak aurkeztuko ditu. Dirulaguntza 800 euro baino gutxiagokoa bada, ordea, ez ditu aipatutakoak egiaztatu beharko, 58/2004 Foru Dekretuak xedatutakoarekin bat etorritik. Zerga betebeharrei dagokienez, baldin eta sozietatearen egoitza Araban daukaten erakunde onuradunak badira, nahikoa izango da egunean dituela adieraztea, eta Foru Aldundiaren zeregina izango da egiaztagiria egitea, Foru Ogasunaren bidez.

#### **Seigarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

Eskaerak aurkezteko epea hogeit egunekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

#### **Zazpigarrena. Prozeduraren bideratzea eta balorazio irizpideak**

1. Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzua da espedientea bideratzeko organo eskuduna.

2. Laguntzaren zenbatekoa euskara ikastaroetako matrikulen kostuaren ehuneko 80 izango da. Muga 850,00 euro izango da onuradun bakoitzeko, salbu eta 2.000 lizentzia edo gehiago dituzten erakundeentzat; horientzat dirulaguntza muga 2.550,00 euro izango da.

3. Emaizten kopurua deialdiaren diru zuzkidura baino handiagoa bada, jaso beharreko dirulaguntza proportzio berean hainbanatuko da, dirulaguntza deialdiaren aurrekontu baliabideetara egokitzeko.

#### **Zortzigarrena. Ebazpena**

1. Kirol Zerbitzuak izango du prozedura izapidetzeko eskumena.

2. Balorazio batzorde batek aztertuko ditu eskaerak. Batzorde horren lehendakaria Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria izango da, eta honako hauek mahaikide: Kirol Zerbitzuaren burua eta Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzari atxikitako bi teknikari. Euskara, Kultura eta Kirol eta Idazkaritza Teknikoaren burua izango da idazkari, eta horrek hitza izango du, baina ez botorik.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, egoki iruditzen zaion kasuetan, datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztu diren agiriei buruz; eta, eskaera horiei ez bazaie erantzunik ematen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, aurreikusitako epeen barruan gerta liteke espediente atzeratzea, eta are artxibatzea ere.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera alderatu ondoren, balorazio batzordeak txostena egingo du ebaluazioaren emaitza zehaztuz, eta, beharrezkoa bada, eskaeren arteko lehentasuna ezarriko du.

3. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena hartzeari begira ez baitira aintzat hartuko entitate onuradunek aurkeztutako egitateak eta agiriak baino.

4. Kirol Zerbitzuaren proposamena aztertu ondoren, organo eskudunak bidezko ebazpena emango du; horretarako, gehienez ere, sei hilabeteko epea izango du deialdia ALHAOn argitaratzen denetik. Epe horretan ebazpen espresurik ematen ez bada, interesdunek eskaera ezetsi egin dela ulertu behar dute.

5. Esleipen ebazpenean zer erakunde eskatzailei eman zaion dirulaguntza zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla.

6. Dirulaguntza eskaerari baiezkota eman bazaio, ebazpenean datu hauek agertuko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, laguntzaren xede den programa edo jardura, aurkeztu beharreko agiriak eta zer baldintzatan ematen den. Gainera, ebazpena onuradunei jakinaraziko zaie, bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatutakoarekin.

7. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan aurreikusten dituen moduetan.

8. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 8. artikuluan xedatutakoaren arabera. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatuta.

Zuzenean aurkatu ezean, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin.

#### **Bederatzigarrena. Emandako dirulaguntzak ordaintzea eta justifikatzea**

1. Agiri hauek aurkeztutakoan ordainduko da dirulaguntza:

— Jatorrizko edo konpultsatutako fakturak, HABEk homologatutako zentroak egindakoak, matrikularen gastuari dagozkionak, eta zentro horrek bertan egindako ikastaroa dela-eta egindako ebaluazioa.

- Euskara ikastaroa egin duen pertsonaren lan kontratuaren kopia.
- Diruz lagunduko diren gastuak ordaindu direla egiaztatzen duen agiria, hau da, matrikulak ordaindu izanaren agiria.

2. Aipatutako justifikazioa aurkezteko epea 2019ko abenduaren 27an amaituko da.

Justifikazio hori Kirol Zerbitzuaren buruak adostuko du.

Lortutako dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako gastuak ordaindu direla frogatzen ez bada, justifikatu beharreko aurrerakin moduan ordainduko da dirulaguntza.

2020ko otsailaren 28ra arteko epean aurkeztu beharko dira dirulaguntza justifikatzen duten gastuak ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak.

La Dirulaguntzen justifikazioa egin beharko da Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuaren, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartzen dituenaren, hamargarren klausulan ezarritakoaren arabera.

Erakunde onuradunek jatorrizko fakturak aurkeztuko dituzte edo konpultsatuak, bai eta zentro homologatuak egindako ikastaroaren ebaluazioa ere. Gainera, erakunde onuradun bakoitzak euskara ikastaroa egin duen pertsonaren lan kontratuaren kopia bat aurkeztu beharko du.

Aurkeztu beharreko ziurtagiri guztiak, aurreko paragrafoetan adierazi direnak, jatorrizkoak izango dira eta fotokopia konpultsatu batekin batera aurkeztu ahalgo dira, behin Kirol Zerbitzuak zigilatu ondoren, jatorrizkoa atzera bueltatzeko. Zigilu horretan dirulaguntzaren zenbateko zehatza jasoko da.

Beharrezkoa da fakturak aurkeztea jatorrizko formatuan; hortaz, ez dira halakotzat joko fax bidez, datozenak, eskaneatuta daudenak, posta elektronikoko bidez bidaltzen direnak, ezta antzekoak ere.

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagiririk:

- Igorlea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Hartzaila, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Faktura zenbakia.

Ez dira onartuko justifikazio gastu gisa PFEZeko konturako atxikipenen gaian (PFEZ, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga) zerga araudia betetzen ez duten faktura eta ordainagiriak.

Fakturak ordaindu direla egiaztatzeko agiriei dagokienez, ordainketaren froga-agiri hauek onartuko dira:

- Jatorrizko fakturak, enpresa jaulkitzailearen zigiluarekin, ordainduta daudela adieraziz.
- Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da, eta/edo bankuaren zigilua jarrita daukala.
- Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.
- Posta arruntez jasotako jatorrizko banku laburpenak.
- Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituenak.
- Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak.

— Jatorrizko erosketa txartelak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritza gune, autobide, bidaiak txartel eta abar).

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2019rako indarreko araudian ezarriko den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalia atzerriko monetetan).

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, eta ondasunak entregatzea edo zerbitzuak ematea zatika egin bada, batu egingo dira egindako eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak.

3. BEZaren kuota jasanak diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira, gizarte izaerako erakunde edo establezimenduek emandako zerbitzuengatik, izaera hori onartuta izatea gorabehera, baldin eta kasu bakoitzean aplikagarri diren baldintzak betetzen badira (BEZaren Foru Arauaren 20. Hiru artikulua, arauaren 20. Bat artikulua 14. paragrafoan jasotzen duen salbuespena egiteko).

#### **Hamargarrena. Dirulaguntzen bateragarritasuna**


Emandako dirulaguntzak bateragarriak dira nazioko edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuek jardura edo programa bererako emandako beste dirulaguntza batzuekin, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoak, berak bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ez badu gainditzen diruz lagundutako programaren edo programen kostua.

Entitate onuradunak, helburu bererako, beste dirulaguntza edo laguntzaren bat eskatu badio beste administrazio edo erakunde publiko bati, den estatukoa edo nazioartekoa, edo beste entitate edo erakunde pribatu bati, edo beste dirulaguntza edo laguntzaren bat lortu badu horrela, jakinarazi egin beharko dio dirulaguntza esleitu dion organoari.

#### **Hamaikagarrena. Publizitatea**

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta ahaleginak egingo dira komunikabideetan ahalik eta zabalkunde handiena izan dezan.

Eranskinak era digitalean ere eskura daitezke webgune honetan: [www.araba.eus](http://www.araba.eus).

|  |  |
|--|--|
|  <p>Arabako Foru<br/>Aldundia<br/>Diputación<br/>Foral de Álava<br/>www.araba.eus</p> | <p><b>Arabako kirol federazioentzako eta kirol federazioen elkartearako dirulaguntzak euskara ikasteko ikastaroak. Eskabidea (I. eranskina)</b></p> <p><b>2019</b></p> <p>Subvenciones a federaciones deportivas alavesas y asociaciones de federaciones deportivas, para la realización de cursos de aprendizaje de euskera.<br/>Solicitud (Anexo I).</p> |
|  | <p>Euskera, Kultura eta Kirol Saila</p>  |

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

ASUN

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

### ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE <sup>(1)</sup>

|   |                                       |                        |                     |                 |              |
|---|---------------------------------------|------------------------|---------------------|-----------------|--------------|
| Identifikazio agiria ■ Documento identificativo | Identifikazio zk. ■ N° identificativo |                        |                     |                 |              |
| <input checked="" type="checkbox"/> IKZ ■ CIF   |                                       |                        |                     |                 |              |
| Sozietatearen izena ■ Razón social              |                                       |                        |                     |                 |              |
|   |                                       |                        |                     |                 |              |
| Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)            | Zk. ■ Núm.                            | Letra                  | Eskra. ■ Escal.     | Solairua ■ Piso | Aldea ■ Mano |
|   |                                       |                        |                     |                 |              |
| Herialdea ■ País                                | Probintzia ■ Provincia                | Udalerrria ■ Municipio | Herrria ■ Localidad | P. K. ■ C. P.   |              |
|   |                                       |                        |                     |                 |              |
| Posta elektronikoa ■ Correo electrónico         |                                       |                        |                     |                 |              |
|   |                                       |                        |                     |                 |              |
| Telefona ■ Teléfono                             | Mugikorra ■ Móvil                     | Faxa ■ Fax             |                     |                 |              |
|   |                                       |                        |                     |                 |              |

### JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL <sup>(2)</sup>

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)


|                                      |                        |                        |                     |                 |              |
|--------------------------------------|------------------------|------------------------|---------------------|-----------------|--------------|
| Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle) | Zk. ■ Núm.             | Letra                  | Eskra. ■ Escal.     | Solairua ■ Piso | Aldea ■ Mano |
|                                      |                        |                        |                     |                 |              |
| Herialdea ■ País                     | Probintzia ■ Provincia | Udalerrria ■ Municipio | Herrria ■ Localidad | P. K. ■ C. P.   |              |
|                                      |                        |                        |                     |                 |              |

### LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

|   |                                       |   |
|---|---------------------------------------|---|
| Identifikazio agiria ■ Documento identificativo | Identifikazio zk. ■ N° identificativo | Sexua ■ Sexo                            |
| <input type="checkbox"/> NAN DNI                |                                       | <input type="checkbox"/> Emakumea Mujer |
| <input type="checkbox"/> AIZ NIE                |                                       | <input type="checkbox"/> Gizona Hombre  |
| <input type="checkbox"/> Besteren bat Otro      |                                       |   |
| Izena ■ Nombre                                  | Lehen abizena ■ Primer apellido       | Bigarren abizena ■ Segundo apellido     |
|   |                                       |   |
| Posta elektronikoa ■ Correo electrónico         |                                       |   |
|   |                                       |   |
| Telefona ■ Teléfono                             | Mugikorra ■ Móvil                     | Faxa ■ Fax                              |
|   |                                       |   |

Orria ■ Hoja 1/6

|   |  |
|---|--|
|  <p>Arabako Foru<br/>Aldundia<br/>Diputación<br/>Foral de Álava</p> <p>www.araba.eus</p> | <p><b>Arabako kirol federazioentzako eta kirol federazioen elkartearako dirulaguntzak euskara ikasteko ikastaroak. Eskabidea (I. eranskina)</b></p> <p><b>2019</b></p> <p>Subvenciones a federaciones deportivas alavesas y asociaciones de federaciones deportivas, para la realización de cursos de aprendizaje de euskera.<br/>Solicitud (Anexo I).</p> |
|---|--|

Euskera, Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

**ESKAERA AURKEZTEN DUEN PERTSONAREN ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENA ■**  
DECLARACION RESPONSABLE DE LA PERSONA QUE PRESENTA LA SOLICITUD

Behean zehaztutako pertsonak, zeinak bertan sinatzen baitu, zinpean adierazten du azaltzen den entitateak baimenduta dagoela haren izenean aurkezteko erantsitako eskaera.

La persona abajo especificada, que firma la presente, declara bajo juramento que está autorizada por la Entidad que se señala para presentar en nombre de la misma la solicitud adjunta.

|  |  |
|--|--|
| <b>Izen-abizenak ■</b><br>Nombre y apellidos |  |
| <b>NAN ■</b><br>DNI                          |  |
| <b>Entitatea ■</b><br>Entidad                |  |
| <b>IFK ■</b><br>CIF                          |  |
| <b>Kargua ■</b><br>Cargo                     |  |

.....  
(Lekua eta data ■ Lugar y fecha)

**Sinadura ■ Firma** \_\_\_\_\_


(**zigilua ■ Sello**)

Berariaz baimena ematen dut neure datu pertsonalak Arabako Foru Aldundiak trata ditzan, baldin eta laguntza ekonomiko honen tramitazio eta kontrola kudeatzeko helburuz bada. ■ Expreso mi consentimiento para que Diputación Foral de Álava (DFA) trate mis datos personales para las finalidades de gestionar la tramitación y control sobre esta ayuda económica.

|   |  |
|---|--|
| <p><b>Eskaera sinatzen duenaren<br/>NANaren fotokopia.</b></p> <p><b>(AURREKO ALDEAN)</b></p><br><br><p>Fotocopia del DNI de la persona<br/>firmante de la solicitud.</p> <p><b>(ANVERSO)</b></p> | <p><b>Eskaera sinatzen duenaren<br/>NANaren fotokopia.</b></p> <p><b>(ATZEKO ALDEAN)</b></p><br><br><p>Fotocopia del DNI de la persona<br/>firmante de la solicitud.</p> <p><b>(REVERSO)</b></p> |
|---|--|

Orria ■ Hoja 2/6





Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava  
www.araba.eus

**Arabako kirol federazioentzako eta kirol federazioen elkartearako dirulaguntzak euskara ikasteko ikastaroak. Eskabidea (I. eranskina)**

**2019**

Subvenciones a federaciones deportivas alavesas y asociaciones de federaciones deportivas, para la realización de cursos de aprendizaje de euskera.  
Solicitud (Anexo I).

Euskera, Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

**BANKUEN DATUAK ■ DATOS BANCARIOS <sup>(3)</sup>**


(Banku helbideratzearen datuak aldatu badira bete soilik ■ Cumplimentar únicamente en el caso de modificación de los datos de la domiciliación bancaria)

|                          |              |
|--------------------------|--------------|
| <b>BANKUA ■</b><br>BANCO |              |
| <b>IBAN</b>              | <b>SWIFT</b> |
|                          |              |

Berariaz baimena ematen dut neure datu pertsonalak Arabako Foru Aldundiak trata ditzan, baldin eta laguntza ekonomikoko honen tramitazio eta kontrola kudeatzeko helburuz bada. ■ Exproso mi consentimiento para que Diputación Foral de Álava (DFA) trate mis datos personales para las finalidades de gestionar la tramitación y control sobre esta ayuda económica.

| (FINANTZA ENTITATEAK bete behar du) ■<br>(A rellenar por la ENTIDAD FINANCIERA)   | (ESKATZAILEAK bete behar du) ■<br>(A rellenar por la persona SOLICITANTE)  |
|---|--|
| <p><b>Finantza entitatearen adostasuna (sinadura eta zigilua) ■</b></p> <p>Conforme entidad financiera (firma y sello)</p> <p>.....(e)ko.....aren.....(e)an</p> <p>En....., a..... de..... de.....</p> <p>Finantza erakundeak ZIURTATZEN du lehen adierazitako banku kontua "ESKATZAILEA" atalean ageri den pertsona fisiko edo juridiko interesdunaren izenean eta IFZarekin dagoela irekita, eta pertsona interesdun hori kontuaren titular gisa ageri dela</p> | <p><b>Hirugarren interesdunaren sinadura edota entitatearen zigilua ■</b></p> <p>Firma de la persona interesada y/o sello de la entidad interesada</p> <p>.....(e)ko.....aren.....(e)an</p> <p>En....., a..... de..... de.....</p> <p><b>ADIERAZI BI AUKERETAKO BAT:</b></p> <p><input type="checkbox"/> Alta eskatzen da Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan, ESKAERA HONI IFZ-REN FOTOKOPIA ERANTSITA</p> <p><input type="checkbox"/> Bankuko datuak eguneratzea eskatzen da, dagoeneko altan egonik Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan</p> |

Orria ■ Hoja 3/6



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava  
www.araba.eus

**Arabako kirol federazioentzako eta kirol federazioen elkartearako dirulaguntzak euskara ikasteko ikastaroak. Eskabidea (I. eranskina)**

**2019**

Subvenciones a federaciones deportivas alavesas y asociaciones de federaciones deportivas, para la realización de cursos de aprendizaje de euskera.  
Solicitud (Anexo I).

Euskera, Kultura eta Kirol  
Saila

Departamento de  
Euskera, Cultura y Deporte

La entidad financiera CERTIFICA que la cuenta bancaria anteriormente señalada figura abierta al NIF y nombre de la persona física o jurídica interesada que figura en el apartado "SOLICITANTE", y que dicha persona interesada figura como titular de la cuenta.

INDICAR UNA DE LAS DOS OPCIONES:

Se solicita el alta como Tercero de la Diputación Foral de Álava, para lo cual SE ADJUNTA FOTOCOPIA DEL NIF A LA PRESENTE SOLICITUD

Se solicita la puesta al día de los datos bancarios como Tercero de la Diputación Foral de Álava ya dado de alta.

#### JARDUEREI BURUZKO DATUAK ■ DATOS DE LAS ACTIVIDADES

**Kursoaren izenburua ■ Título del curso**


**Kursoaren xede nagusiak ■ Objetivos principales del curso**

**Xede taldea ■ Público destinatario**

**Kursoaren deskribapena ■ Descripción del curso**

**Ebaluaziorako neurriak ■ Medidas para la evaluación**

Orria ■ Hoja 4/6



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava  
www.araba.eus

**Arabako kirol federazioentzako eta kirol federazioen elkartearako dirulaguntzak euskara ikasteko ikastaroak. Eskabidea (I. eranskina)**

**2019**

Subvenciones a federaciones deportivas alavesas y asociaciones de federaciones deportivas, para la realización de cursos de aprendizaje de euskera.  
Solicitud (Anexo I).

Euskera, Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

|  |
|--|
|  |
|--|

**AURREKONTUA ■ PRESUPUESTO**

Aurrekontua: aurreikusitako gastuak eta sarrerak ■ Presupuesto: gastos e ingresos previstos

| Aurreikusitako gastuak ■ Gastos previstos |  | Aurreikusitako sarrerak ■ Ingresos previstos<br>(Norberaren ekarpena, besterena, kuotak...)<br>(Aportación propia, de otras entidades, cuotas...) |  |
|---|--|---|--|
|   |  |   |  |
|   |  |   |  |
|   |  |   |  |
| <b>GUZTIRA ■ TOTAL</b>                    |  | <b>GUZTIRA ■ TOTAL</b>  |  |

**ERANTSI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA ■ DOCUMENTACIÓN A ADJUNTAR**

|                                     |   |
|-------------------------------------|---|
| <input checked="" type="checkbox"/> | <p><b>Euskara ikastaroetan matriculatutako pertsonen erakunde onuradunaren egiaztagiria, non zehaztuko diren izen-abizenak, nortasun agiri nazionalaren zenbakia, erakundearekin kontratu bidez duen lotura eta erakundearen barruan egiten dituen lanak. ■</b></p> <p>Certificado de la entidad beneficiaria de la/s persona/s matriculada/s en los cursos de euskera, en el que se especifique nombre, apellidos, número del documento nacional de identidad, vinculación contractual con la entidad y las funciones que realizan dentro de la entidad.</p> |
|-------------------------------------|---|

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen/ordezkararen sinadura ■ Firma de la persona solicitante/representante

|  |
|--|
|  |
|--|

Orria ■ Hoja 5/6



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava  
www.araba.eus

## Arabako kirol federazioentzako eta kirol federazioen elkartearako dirulaguntzak euskara ikasteko ikastaroak. Eskabidea (I. eranskina)

### 2019

Subvenciones a federaciones deportivas alavesas y asociaciones de federaciones deportivas, para la realización de cursos de aprendizaje de euskera.  
Solicitud (Anexo I).

Euskera, Kultura eta Kirol  
Saila

Departamento de  
Euskera, Cultura y Deporte

#### Oharra (1)

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua xedatutakoari jarraituz, jakinarazten dizugu eman dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko Kirolariak izeneko fitxategian sartuko direla. Datu horien tratamendua kirol jarduera eta entitateekin zerikusia duten bekak eta dirulaguntzak kudeatzeko, kirol prestakuntzako ikastaroak egiteko, jarduerak ikuskatzeko eta iradokizunak kudeatzeko egiten da. Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla, eta ez zaizkiela jakinaraziko beste batzuei, legez ezarritako kasuez kanpo. Aukeran izango duzue datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, DBEOK aitortzen dituenak, eta, horretarako, Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo beharko duzue (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz -Araba). Argibide gehiago: <http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua>

#### Oharra (2)

Nahi baduzu administrazioak bide telematikoz bidal diezazkizun jakinarazpenak, alta eman beharko duzue Jakinarazpen Telematikoen Zerbitzuan eta, administrazioarekin harremanetan jartzeko, posta elektronikoa bakarrenean helbidea (EBH) lortu. Ondoren, zerbitzu horrek gaituta dituen prozeduretan harpidetun egin ahal izango zara. Jakinarazpenak bide telematikoz jasotzeari utzi nahi izanez gero, nahikoa izango duzue dagokion prozeduran baja ematea.

#### Oharra (3)

Zuk emandako banku datuak hirugarrenen eta interesdunen fitxategian erregistratuko dira, zeina Administrazio honen titulartatekoa baita, aurrekontu gauzatzeari eta aurrekontuz kanpoko gauzatzeari dagozkion eragiketen izapideak egiteko. Atal honetan emandako datuak ez dira tratatuko edo komunikatuko, baldin eta lehenago egindako ordainketen ondorioz, dagoeneko alta eman bazaie identifikazio eta banku datuei, berriro ere kobratzea hautatzeko eman direnei

#### Oharra (4)

Berdintasunaren arloko araudia betez, honako hau ADIERAZTEN DUT

#### LEHENENGOA.

Ez ordezkatzin dudun elkarte edo erakundeak, ez elkarte edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako ezin kidek ez duela sexua dela eta inor bazterten, ez zuzenean ez zeharka, onarpen prozesuetan edo funtzionamenduan, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 24.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

#### BIGARRENA.

Ez ordezkatzin dudun elkarte edo erakundeak, ez elkarte edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako ezin kidek ez duela zigorririk izan, ez arlo penalean ez administrazioan, sexua dela eta inor bazterteagatik, eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasun arloan xedatutakoak urratzeagatik, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak, lan arloko arau hausteei eta zehapenei buruzko legearen testu bateratua onartzen duenak, ezarritakoaren arabera.

#### Nota (1)

"Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que Vd. Nos facilita van a ser incluidos en el Fichero Deportistas titularidad de Diputación Foral de Álava cuyos tratamientos se realizan para la gestión de concesión de becas y subvenciones relacionadas con actividades y entidades deportivas, realización de cursos de formación deportiva, inspección de actividades y gestión de sugerencias. Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente. Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava). Para más información: <http://www.araba.eus/web/AvisolEgalAmpliado>

#### Nota (2)

Si quiere que la Administración le remita las notificaciones por vía telemática, deberá darse de alta en el Servicio de Notificaciones Telemáticas y obtener una dirección de correo electrónico única (DEU) con la que comunicarse con la Administración, suscribiéndose, posteriormente, a los procedimientos que tengan habilitado este servicio, podrá dejar de recibir las notificaciones de forma telemática al dar de baja la suscripción al procedimiento correspondiente

#### Nota (3)

Los datos bancarios facilitados por usted se registrarán en el Fichero de Terceros e interesados titularidad de esta Administración para realizar la tramitación de operaciones de ejecución presupuestaria y extrapresupuestaria. No se tratarán ni comunicarán los datos cumplimentados en este apartado si como consecuencia de pagos realizados con anterioridad, ya estuvieran dados de alta los datos identificativos y bancarios por los que de nuevo se optara para el cobro.

#### Nota (4)

En cumplimiento de la normativa en materia de Igualdad DECLARO:

#### PRIMERO.

Que ni la asociación u organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de sus órganos de gobierno o administración, realizan actos de discriminación directa y/o indirecta por razón de sexo en los procesos de admisión o en el funcionamiento de conformidad con lo estipulado en el artículo 24.2 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

#### SEGUNDO .

Que ni la asociación u organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de sus órganos de gobierno o administración, han sido sancionadas penal y/o administrativamente por discriminación por razón de sexo y/o por infracciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres derivadas del Texto Refundido de la Ley de Infracciones y Sanciones en el Orden Social, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto.